

Zer berri Herrigune historikoa zaharberritzeko plana  
**Sutondoaren epelean** X. Gaztañerre Azoka zapatuan

# Sutondoaren

SORALUZeko  
HAMABOSTEKARIA  
121. alea, 2005eko  
azaroaren 11an



## Kaletik basarrira



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**

# **GOL**

**GOL industriak S.A.**  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**

# **Ion Murgizu Pinturak**

**- Margoketa orokorren -**

**Empapelatuak,**

**Estukoak**

**Fatxadak**

**Eskilarak eta patioak**

**Pintura industrialak**

**Telefona 943751324**  
**Mugikorra 652777030**  
**Ezoziko etorbidea 24 2 behea**  
**20590 Soraluze**



LIERNI SANTAMARIA

# Matia Fundazioa

Adineko pertsonekin lanean aritzea ez da batere lan erraza. Hala ere, ez du aparteko meriturik, guztion nortasunarekin bat datorren berezitasun eta nahia da. Gure lana pertsonetik erlazioetan oinarrituz, hauekin momentu onak eta txarrak konpartitzea litzakete.

Gizartean barneratua dugu, pertsona nagusiak bereziak direla. Hala ere, zalantzan jarri dezakegu, alegia, pertsonen berezitasunak, urteetan aurrera joan ahala areagotu egiten direla egia da, baina ez pertsona nagusiak "arrarotu" egiten direla, baizik eta beraien nortasuna oraindik ere gehiago finkatzen dela. Bestalde, beraien mendetasuna areagotzen doan ahala, langilegoaren, sendiaren edota inguruko pertsonen behar haundiagoa dute. Guk ordea, eguneroko beharrak burutzeko ekintzak, gure erara egin nahi dizkiegu eta hauek sarritan arrazoi osoz ez dute onartzen, beraien urte eta hamarkadetan zehar beste era batera burutu baitituzte ekintza hauek.

Gure nahia, itxura honetako zentruen, gizarte irudia aldatzean legoke, hau da, baliabide hau ez mugatzea, familiarik ez duen jendearentzako, gaixo daudenentzako edota hiltzorian direnentzako, baizik eta beraien beharrak burutzeko laguntza txiki baten beharra izanik, baldintza hauetako zentru baten la-saitasuna, konpañia... hautatzen dutenentzako hasiz, beharra duen beste edozeinentzako izanez. Helburu hau lortu nahian, gure bizigune diren egoitzak gizartera ireki egiten ditugu, sendien sarrera-irteerak areagotuz, egoileen irteerak sustatuz, urtean zehar burutzen diren ospakizunetan gizarte taldeen kolaborazioa eta partehartzea eskatuz, bolondresen lana etengabe eskertuz, belaunaldien arteko topaketez baliatuz (ikastolekin), gaur egungo gazte eta adineko pertsonen erlazioak areagotzeko, guztiei errealitate baten jabe egiten lagunduz.

Bukatzeko, gizartean pertsona ororen presentzia beharrezkoa eta batez ere aberasgarri dela adierazi nahi dugu, hauek erakutsi dezaketen esperientzia eta jakintasuna haundia baita. Horregatik, gizarte osoa gonbidatzen dugu ildo honetako zentruak ezagutuz bere aportazio txikia eskeintzera, zein hobekuntza bezela, zein bolondres bezala edota kolaboratzaile bezela, inori ez bait litzaioke atsegin izango gerontologi zentru batean biziz gizartetik at dagoela entzutea. **GUZTION LANA DA, DENOK ZAHAR IZATERA IRITSI NAHI DUGU ETA !!!! ESKERRIK ASKO ADINEKO GUZTIEI!!!**

## Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** basarrixa hartu dogu gaitzat ale honetan. **Stop.** Gaztañerre Azokiak merezi dau hainbeste. **Stop.** hamar urte ez dira egunero betetzen. **Stop.** galdetu bestela urtero postua ipini daben basarritarrei. **Stop.** Txurruka, San Andres, Ezoz, Iruretarrei... **Stop.** gero eta bakana go diran indigenak dira zoritxarrez. **Stop.** urtian behin produktu exotiko moduan ikusgai nahi eta izaten dittugunak. **Stop.** bazkari eta dieta ziztrin baten truke. **Stop.** gu, inkonzienteki ez gara konturatzen. **Stop.** eurak bai, eurak konturatzen dira. **Stop.** aspaldi konturatu ziran. **Stop.** baina kexatzeko motibaziñorik be ez dauke. **Stop.** zertarako kexatu. **Stop.** iraganeko garaixak goguan errealitaiari burugogor egitten dotse aurre. **Stop.** hil arte gehixenak!. **Stop.** eta gu eurak "omentzen" ahalegintzen gara. **Stop.** bertso, trikitixa, lora eta abarrekin. **Stop.** eta omenduak ez dabe ulertzen zegaittik. **Stop.** eta egixa esan geuk be ez dakigu. **Stop.** dakiguna da konzientzia lasaittu bihar dogula moduren baten. **Stop.** badakigulako ez garala juan eta ez goiazela bide zuzenetik. **Stop.** egunero hala balixo daben bertako okela, letxuga edo sagarragaittik 20 xemiko gehixao ez pagatziarren basarriaren etorkizuna ilunago egitten dogunian. **Stop.** eta ahazteko, zapatuan ahal dogunok jaixa egingo dogu eta dantzan. **Stop.** euripian eta zoro. **Stop.** baina badira ahazteko ez diran beste gertakizun batzuek be. **Stop.** Altzuguren heriotza esaterako. **Stop.** inork merezi ez bezelako heriotza. **Stop.** ixila eta ixildua eta krudela!



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.  
Telefona 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

### Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno  
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxina, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

### Publizitatea:

Ugaitz Catalan  
Logotipoa: Jon Gabilondo  
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale  
Inprimategia: Gertu Koop.  
Diseinua eta Maketazioa: Maku Oruezabal  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## ERREPORTAIA

*Azken hamarkadetan baserriar askok egin du kalera, lanera edo bizimodu erosago baten bila. Plazentziako 88 baserrietatik 38 hutsik geratu dira, bizilagunik gabe. Batzuk ondo zainduta daude, bertan bizitzeko moduan; beste batzuk, berriz, obra edo berrizte premiak jota.*



## Zorion agurrak



**Ane Moreno**  
Azaruaren 16xan  
**Zorionak** eta  
musu handi bat  
etxekuen partetik!



**Naroa Gil Ayora**  
Azaruaren 8xan  
2 urte  
**Zorionak**  
**prexioxa!**  
Musutxo asko  
etxekuen partetik!



**Manex Osinaga**  
Azaruaren 21ian  
2 urte  
**Zorionak**  
**politita!**  
Etxekuen partetik!



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Gutunak

### Gipuzkoako Foru Aldundia gero eta hurbilago

Horrela dio Foru Aldundiak komunikabideetan martxan duen kanpaina berriaren spotak. Sorraluzeko herrian ere hurbiletik sentituko dugu Foru Aldundiaren eragina, Urkulutik Eibarrera egiteko den ur trasbasea, esandako lekutik eramaten bada azkenean. Plaentxiarrak orain izan badugu proiektu honen berri, ideia aspaldikoa da, 1992.urtean egin zen lehengo proiektua trenbide zaharretik egiteko asmoarekin. Nora begira egon dira hamahiru urte hauetan Foru Aldundia eta Udala? Ez al da bial berria oraintxe bertan egin? Azkenengo Pil-Pilean aldizkariko azalean aurreikuspen ezaren argazki fixoa ikusi dugu. Esandako proposamena Udalak ez badu ezeztatzen, herritarrak izango gara, jasango ditugun eragozpenengatik, politikoen "despistea" ordainduko dugunak. Ur trasbase honek eramango ditu gainera, Diputazioak agindutako diru erdiak, ez herriko hirigintzak Pil-Pilean adierazi bezala.

Beste alde batetik, gustatuko litzaiguke, norbaitek argitzea zer zentzu duen Sagar-Errekako bidegurutzean jarri nahi duten errotonda "faltsuak", herri barruan egindako norabide aldaketak egin eta gero, bertako arriskua eta ibilgailuen zirkulazioa hainbeste murriztu denean. Zuzenagoa da hasieratik irtenbide global bat ematea, errotonda GI-627 errepedean eginda, bertan baitago arazoa eta arriskua, eta ez denon txanponak alferrikako lanetan gastatzea.

Gaia adaltuz, oso kezkatuta gaude azken hilabete hauetan Udalak izandako joerarekin. Foru Aldundiak bere spota atera badu, Udaletxearena honako hau izan zitekeen: SORALUZeko UDALAGERO ETA URRUTIAGO, herritarren-gandik, noski.

Pare bat adibide jarriko ditugu. Le-

hena, eremu publikoan egiteko asmoa duten aparkaleku pribatuenguruz. Erregetxeko lurpeko garajeen informazio zabalera emango zutela esan zuten Udal Gobernuako partaideak (PNV-EA) Uztaileko Pil-Pilean aldizkariko alean. Xehetasun hauek Irailean ematekoak ziren, Azaroan egindako plenoan aparkalekuak egiteko proiektua onartu dute, oposizio osoaren desadostasunarekin. Oraingoan, sorraluzetarrak alde batera uzteaz aparte, gezurra ere esan dute.

Bigarrenak, Alde Zaharreko Berrikuntza Plan Bereziarekin zer ikusia du. Inongo pausorik eman aurretik, planaren espazio publikoa eta inplikatuak eta gainontzeko herritar guztiei informazio osoa eman beharra dago. Sorraluzeko etorkizunerako hain garrantzitsua den gai honekin ere plaentxitarrei inongo azalpenik eman gabe Udal Batzak onartu du, oposizio osoaren ezetzarekin oraingoa ere, Plazo Berezia abian jartzea. Nola egingo dituzte, ezer ez badakite, hogeni ta hamar eguneko epean, herritarrak euren ekarpen edota alegazioak?

Kezkagarria da EAJ-EA koalizioaren jarrera Udala kudeatzeko orduan, gero eta handikeri gehiagorekin ari dira, herritarrei bizkarra emanez eta beste Udal taldeak baztertuz.

Aipatutako eta sortu litezkeen (errekako presena adibidez) gaiak aztertzeke eta zuen ekarpenak jasotzeko Herri Batzarra egingo dugu Udaleko Pleno aretoan datorren AZAROAren-23an. ASTE-AZKENA, arratsaldeko 7,30etan.

Denon inplikazioa eta parte hartze aktiboagoak egingo dute posible Sorraluzeko herri aberatsago eta dinamikoagoa izatea.

**Sorraluzeko Askatasun Haizeak**  
**Herri plataforma**

## Lehiaketak

### Euskal Herriko 1. Ikus-entzunezkoen Rallya

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa. Abenduaren 17an Eibarren. Bertan parte hartu nahi duten 16 eta 35 urte bitarteko gazte euskaldunek izena eman beharko dute, azaroaren 21a baino lehen. Topagunean ([www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)) edo Eibarko ...eta Kitto! Euskara Elkarten ([www.eta-kitto.com](http://www.eta-kitto.com)). Ikus-entzunezkoen Rallyak, gehienez, hiru minutuko ikus-entzunezko lana sortzean datza, lehiaketa egunean eta Eibarren kokatuta.

### Iruñeko Mendiko Argazkien XXV. Lehiaketa

Anaitasuna Mendi Saila. Koloretako argazkiak eta diapositibak. Gaia mendia, natura eta ingurumena izango da. Pertsona berak bi modalitate horietako edozeinetan parte hartu ahal izango du. **Epea:** 2005-12-08. Telefonoa: 948 254900 <http://www.anaitasuna.com>.

## Herrikoak

### Pisua salgai Bergaran

Interesatuek gaueko 9etatik aurrera deitu. Tel. 607497323 / 649820859

### Haurren silla osoa salgai

Bebe Confort Trophy Air 6. Oso berria. 300 €. Tel. 943751003 / Mug. 629542795

### Txakurkumea salgai

Boxer arrazako txapeldunen kumea. 250 €. Tel. 659 55 41 39

## Jaiotakoak

MARTIN ARISTI ARRIEN  
UNAX SUDUPE OSTOLAZA  
IKER USOBIAGA IBAZETA  
JOSU PEREZ PINILLA  
NAIA INTXAURBE MENDIZABAL

**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

## Zer irizten dotsazu?

Han eta hemen ikusten da aspalditik baserriko bizimodua eta jarduerak indarra galtzen ari direla. Hala ere, badira ahaleginak egitasmo berriak lantzeko eta gure herriko dendetan erosgai dira baserriko produktuak.

# Ze etorkizun dauka basarrixak? Bertako jakiak kontsumitzen ditzuzu?



**Gema Telleria**  
37 urte, langilea

Baserrixan lan asko dago. Gazte batzuk pentsatzen dabe lan erreza dala. Nik uste dot behe-runtz jarraituko dabela. Nik baserrixetako produktuak kontsumitzen dittut, aldia dago bertako eta kanpoko produktuen artian.



**Leo Zarobe**  
14 urte, ikaslea

Etorkizun ona ikusten dotsat basarrixari. Lan asko egitten dabe, produktu onak etaratzten dittue. Hori ikusten da azokan behintzat, janaz aparte animalixak be bai.



**Nieves Bouzo**  
52 urte, langilea

Baserritik bizitzia oso zaila da, subentziñuak eman bihar-ko littuzkie. Nik uste etorkizunian basarrixak etxe normalak edo akaso erakusketak ipintzeko bakarrik izango dirala. Nik bertako produktuak erosten dittut bestien aldian onak dira.



**Antonio González**  
34 urte, langilea

Gero eta zailago dago basarritik bizitzia, animalixen gaixotasunekin, eta telebistan azaltzen diran arazo guztiekin zaila egitten dabe kontua. Guk bertako produktuak kontsumitzen ditugu, eta ahalegintzen gara horretan.



**Francisco Juan**  
68 urte, jubilatua

Etorkizuna lan eginez gero badago basarrixan. Eguraldixak ez dau laguntzen bape, baina bueno. Lurrak landatu egin bihar dira produzitzeko. Nik bertako produktuak kontsumitzen dittut, tomatiak, sagarrak, lekariak...



**Pilar Blanco**  
76 urte, jubilatua

Gogorra da basarrixa eta oso laguntza gutxi dago. Subentziñuak be gutxi. Adibidez esnia oso gutxi ordaintzen jakue eta gero guri karu kobratzen doskue. Nik bertako produktuak kontsumitzen dittut, berduria, patatia, esnia...

**KREA**  
Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

**AINHOA LETE IRASUEGI**  
Tel.: 635731268

**SOMABE**

MAKINA BEREZIAK  
LERRU AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALLUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendola industrialdea, 14-5 - Tel. 943 75 18 91 - Faxa 943 75 24 58 - 20590 SORALLUZE - PLACENÇA (Gipuzkoa)

**KONZENTRAZIOA.** Urriaren 31an, hainbat herritarrek, Jose Anjel Altzuguren "Kotto" euskal presoaren heriotza salatu zuten Plaza Berrian. Altzuguren espetxe politikak erahil duela salatu zuten.



## Erregetxeko aparkalekuak 16.000 eta 14.000 euro bitartean

Azaroaren 3 ko Udal Batzarrean, Erregetxeko aparkalekuak egiteko lanak Moyua enpresari ematea onartu zuen Udalak. 9 hilabeteko epean, 135 garage plaza egingo dira, bi solairutan. Lehenengo solairuan aparkaleku batek 16.101 euro balioko du eta bigarreanean 14920. 50 urteren buruan garageak Udalaren jabetzara itzuliko dira.. Oposizio guztiak gaia mahai gainean uzteko eskatu zuen eta emakidaren aurkako botua eman zuen. SAH-k salatu du Gobernuak herritarrei ez diela agindutako informazioirik eman, eta eremu publikoan aparkaleku pribatuak egitearen aurka daudela berretsiz.



## Markesina lekuz mugitzeko eskaera



Zenbait herritar kexatu egin da Ezoziko parkeko bus geltoki berrian markesinarik ez dagoelako. Zirkulazioa aldatu zenetik Kañoi Fabrika ondokoa ez dela erabiltzen eta Ezozki Bidera mugitzeko eskatu dute, neguko euriteetan aterpea izan dezaten.

### URTEURRENEKO MEZA

2004ko azaroaren 19an hil zen Soraluzen 71 urte zituela  
ION IÑARRA ARRUTI *Goian bego*

*"Samindurik dugu bihotza,  
motel bizitzaren garra.  
Gaur faltan somatzen dugu  
zuk emandako indarra."*

Urteurren meza, 2005eko azaroaren 27an goizeko 11:00etan.



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## ARRANO *tabernia*

Telefonoa 75 24 09

*"Giro euskalduna eta sanua"*

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
**etxera**



## Hainbat eraikin ordenazioz kanpo geldituko dira eraberritze planarekin

Azaroaren 3an egin zen Udal Batzarraren Udal Gobernuak, Hirigune Historikoa Eraberritzeko Plan Berezia (gaztelaniaz PER delakoa) onartu zuen, oposizioko hiru alderdiek (SAH, PSE eta PP-k), informazio falta salatuz, plana mahai gainean lagatzeko eskatu arren. Plana Boletín Ofizialean argitaratzen denean, herritarrek 30 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

**Zenbait eraikin ordenantzaz kanpo** Hirigune Historikoa Eraberritzeko Planak, R8 izena daukan guneari eragiten dio: Kalebarren eta Santa Ana (ez osorik) kaleei besteak beste.

Planak, arau subsidiarioak ezarritik, ordenazioz kanpo lagatzen ditu erdiguneko zenbait eraikin. Batetik, Kalebarrenen eta Santa Ana kalean etxaurrea ibai alderuntz luzatuta daukaten eraikin guztiak: Gaztetxea, Soziedadeetako eta kooperatibako terrazak, Txokoko jantokia, etabar. Bestetik, beheko solairua eta 3 pisu baino gehiago dituzten etxeak (4. pisua esan nahi da). Eraikin handien artean, Frontoiko ikastola zaharra gelditzen da ordenazioz kanpo.

Planak, Santa Ana 15 etik (lehen Labegain zegoen lekua) Frontoira igo-gailua jartzea ere aurikusten du.

### SAHren salaketa

SAH-k "lotsagarritzat" jo zuen "informazio falta" eta "berriz ere Udala herritarrei bizkarra ematen" ari zaiela adierazi zuen. Azaroaren 23 rako Herri Batzarra deitu dute Soralezko Pleno Aretoan, informazioa eman eta herritarrei alegazioak egiten laguntzeko.

### Udal Gobernuak lasaitasun eskaera

Udal gobernuko ordezkariak lasaitasuna eskatu diote kaltetutako etxeetako jabeei. "Plana ez da etxiak hartu eta bota. Horrek ez daka zentzurik" adierazi du alkateak. "Etxe horrek etorkizunian poliki-poliki desagertzen juango dira", gaineratu du. "Zela geratzia nahi dogu herrixa etorkizunian? Hori da plana". Etor-kizunera begira, ibetondoan pasealeku bat egiteko asmoa du udalak, Santa Anako arkupe atzeko paseoren jarraipena Plaza Zahar pareraino.

### Alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea

Udalak ez du herri batzarrak egingo herritarrei informazioa emateko, alkatearen esanetan "jentia nahasteko" izaten direlako. Aldiz, interesatu eta kaltetu guztiak bultzatu nahi ditu Udaletxeko ofizina teknikora joateko, informazio zehatza jaso eta alegazioak egiten lagunduko dituztela eta. 30 eguneko epea dago horretarako.



*Diseinua eta Sormena*

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g

138 Postakutxa

tf: 943752150

Faxa: 943752118

**SORALUZE**

Alex, ZABALETAra



## Kaletik baserrira, “kontrako” bidean

*Azken hamarkadetan baserritar askok egin du kalera, lanera edo bizimodu erosoago baten bila. Plazentziako 88 baserrietatik 38 hutsik geratu dira, bizilagunik gabe. Batzuk ondo zainduta daude, bertan bizitzeko moduan; beste batzuk, berriz, obra edo berrizte premiak jota. Erreportai honetako protagonistak kontrako bidea egin dute: kalea utzi eta baserrira joan. Ez dira baserrietik bizi, kalean dute lana, baina baserri bat bihurtu dute euren bizitoki. Aurrerantzean ortua, animaliak eta baserria zaintzeko ardura izango dute; naturaz eta lasaitasunaz gozatzekoa ere bai. Beraiengana jo dugu bizitoki berrira nola egokitu diren jakite aldera.*

**A**lex Gartzia ekainetik bizi da Zabaletan. Eraikina egoera onean hartu zuela esan digu, "nahiko berriztuta eta ondo zainduta". Baserriendako interesa gaztetatik piztu zitzaion: "20 urterekin ogibitartekua hartu eta basarrixak ikustera juaten nitzan, egun-pasa". Alde batetik, eraikinak berak erakartzen du, "zela daguan estruktura. Oin asko ikusten da basarri zahar bat

erosi eta bertan txaleta egittia. Nik lehengo moduan mantentzia nahi dot. Horretarako zela mantendu bihar dan ikasi bihar dot, nun daken desgastiak etabar". Beste alde batetik, baserriko bizimodua interesatzen zaio, "zela bizi ziran gure arbasuak eta zela lan egiten zebe. Nundik gatozen, azken fiñian. Oin motibaziño haundixagua dakat".

Etnografia liburuek laguntzen diote jakintza horretan, eta alderdi

praktikoan Roman "Obe" bezalako baserritar lagunek: "Romanek asko laguntzen dosta basarriko lanekin, baita adarra jo be." Obetik zaintzen du ortuan ari denean eta telefonoz "Hi, zetan habil sasoi hontan hau edo haura egitten?" edo "Hori baiño gehixago makurtu bihar dok ortuan!" bezalakoak botatzen dizkio. Ortu letxugak, lekak, tomatiak, idarrak, azelgak eta azak dauzka, bere hitzetan "esperimento moduan" hasi-berria baita horrelako lanetan. Fruta-arbolak ere badauzka: sagarrak, keixak, mizperua eta intxaurrak. Animaliak berriz, oiloak, untxi bat eta txakurrak. Animaliak ekartzea garestia dela esan digu. Hala ere, etorkizunean txerri bat hazteko asmoa du. Bere esanetan, "basarrixen mundua pixkat lagata dago. Kanpañak egitten dira, baiña asko ezertan ez dira geratzen. Nik pentsatzen dot gehixago egin bihar lirakela. Danori gustatzen ja-



ku mendiko paisajia kurioso ikustia eta mendiko paisajia baserritarrek zaintzen dabe. Basarrixan alde egittia herrixan alde egittia da."

Baserriaren abantailez galdezterakoan, hauek nabarmendu dizkigu: "naturatik gertuago egotia, lasaitasuna, ortu bat euki eta lurrak emoten doskuna ikasteko aukeria, eguneko aktibidadien dispersiñua...kalekua ezagutzen dot; basarrikua probatzera etorri naiz".

**TXOKO  
KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behean, telf: 943751789



**kutxa**

gizarte ekintza



## Onar eta Nagore, EGOTZARA



**O**nar eta Nagore 2005eko urtarrilean etorri ziren Egotzara, baserria erosi berritan. Egoera eskasean zegoen hartu zutenean, eta hila-bete hauetan konponketa nagusiak egiten jardun dute. "Lehenengo teilatua konpondu genduan eta gero barruak kurioso jartzen hasi ginan.

Basarri haundixa eta zaharra da; dana dago mejoratzeko". Horrela esan omen zien basarria saldu zienak: "ointxe ikusiko dozue zer dan lan egittia. Basarrixan ez dago deskansurik".

Baina lanak ere pozik ematen du Onarrek esan digunez: "norberandako danian, egitten danak satisfaziñua

*"Norberarendako egitten danian egitten danak satisfaziñua emoten dau"*

emoten dau". Beste bentaja batzuen artean, hauek aipatu dizkigu bikote gazteak: "lasaitasuna, eguraldi onak, gabeko pasiuak, bizilagunik eza (nahi beste zarata egin leike nahi danian), udabarrixan edertasuna, kanpuan bazkaltzia... eta batez be naturaz gozatu eta baloratzen ikastia." Ortua ere badaukate baserri ondoan: kalabazak, kalabaziñak, lekak, piparrak, letxugak, tomate, pepino eta porruak. Animaliak berriz, gehiago nahiko litzuketela baina ezin dutela orain holakorik planteatu. "Inbersiño haundixa da animalixak ekartzia. Momen-tuz nahikua dakagu: 2 zaldi (lagatakuak), 2 ahuntz, oilar bat eta txakurrak".

Onarrek aita baserritarra zeukan, elgoibartarra, eta Nagoreren ama ere Oñatiko baserri batekoa zen.



## Oier eta Xabier, BARRENETXERA



**O**ierrek eta Xabierrek aste honetan egingo dituzte bizileku berriko pape-rak. Jabeak duela bi urte jeitsi ziren kalera baina ez zuten baserria erabat utzi. "Bertan bizitzeko moduan hartu genduan, nahiz eta gauza asko egon berrizteko. Animalia zaleak dira biak, eta hori izan da baserria hartzeko arrazoietakoa bat.

"Nik 12 txakur dakara, trineua erabiltzeko, " esan digu Oierrek (mushing-a praktikatzen du). Xabierrek bi txakur ditu, baina hegazti zalea da batez ere:" hegazti mordua dakat, 10 klase diferentietakuak. Kalian beti arazo gehixago euki izan dot he-gaztixeri leku bat topatzeko." Aurt-en, hegaztien gripea dela eta, gale-razi egin diote Xabierri hegaztiak

azokan erakustea.

Oier duela 3 aste etorri zen bizitzera baserrira; Xabier laster etorri-ko da. Konponketak egiteko asmoa dute, baina "dirurik euki ezian norberak egin bihar izaten ditte lanak. Prisarik ez daukagu".

Dirulaguntzarik ere ez dute jaso-ko, "ez bazara dedikau bihar base-rrira, ezebez".

*Animalia zaleak dira biak eta hori izan da baserria hartzeko arrazoietakoa bat*

Baserrian bizitzearen abantailen artean lasaitasuna, animalieendako lekua, lurretik jasotako etekinak eta lanak norberari ematen dion satisfazioa aipatu dizkigute. Desabantailen artean berriz, komunikazioa, "edozer erosteko mobidu biharra dago. Gero ta gitxiago baina. Juan zan egunian Mendatanera diar egin genduan eta Gregoritik afarixa ekarri zoskun, motorrian."

# Gaztetxearen etorkizuna eraiki nahian



Gaztetxeari bizitasun handiagoa eman nahi diote gazteek.

“Soraluzeko Gaztetxea Mart-xan” izenburupian, Soraluzeko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu azarorako. Honakoa da egitaraua:

**Azaroak 12, Gaztañerre**

**12etan** Salda eta txorixoa barran.

**18etan** Jokuak.

**23etan** Kontzertuak: Ene Bada, Free Wheelin Tornados, Rouge.

**Azaroak 18, barixakua**

**23etan** Kontzertuak: Soulbreaker

Company, Glow, Escuadron Buck Dharma.

**Azaroak 25-26, asteburua**

*Barixakua*

**18etan** “Play in Soraluze” poesia ta irudi emanaldia.

**20etan** Kantautoreak; Brit, Mikel Egiluz eta Pottoka.

*Zapatua*

**14etan** Bertso bazkaria.

**19:30etan** Galtzagorri Txaranga.

**23etan** Kontzertu sorpresa.

## Santa Zezilia eguneko ospakizunak

Urtero legez, herriko musika el-karteek Santa Zezilia eguna ospa-tuko dute azaroaren 22aren buel-tan. Aurtengo berrikuntza Galtza-gorri txarangaren bat-bateko sartze goiztiarra izango da.

**EGITARAUA:**

**Azaroak 20:** abesbatza eta txistu-lari beteranoak 13:15etan

**Azaroak 22** asteartea, goizeko 7etan Galtzagorri txaranga kalez-kale

**Azaroak 23an** musika eskola, ka-lejira 6:30etan: banda, trikitixa, ikasliak katuan.

## Basauriko Abesbatza

Basauriko Koral Elkarteko abes-batzak kontzertua eskeiniko du azaroaren 19an, Ezoziko Ama Abesbatzak gonbidatuta. Kont-zertua elizan izango da, arratsal-deko 8etatik aurrera.

## Magia Poltsikoko ikuskizunen barruan

Joan den ostiraleko antzerki saio-aren ostean, magia ikuskizuna izango dugu ostiral honetan (hilak 18) 22:15etan kapillan, Iñigo Saenz de Urturi mago Gasteiztarraren eskutik.

GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81

Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



*Gaztañerre Azokak 10 urteko ibilbide arrakastatsua beteko du aurten. Hasieran baserritarren produktuak azaltzeko ekitaldi moduan hasi bazen ere urteen joanean jai giroko egun berezia ere bihurtu da.*



Obe baserriko aizpak barazki postuan.

## X. Gaztañerre Azoka

Aurten ere baserritarrak izango dira protagonista nagusiak. Hain zuzen, 9 izango dira azokan barazki postua jarriko dutenak: Goenetxetxo, Arritxa, Lezarri, Arizaga, Zabale, Obe, Boskoitxi, Agarrebeiztegi eta Iraola. Ganadua berriz 7 baserritatik ekarriko dute baina aurten ez da hegaztirik izango, hegaztien gripea dela eta zabaldu den debekuagatik. Artisau eta bestelako postuak berriz 10 izango dira eta Istitutuko ikasleek erretako gaztainak ere izango dira. Urtero moduan, baserritarrik nagusienak omenduko dira azokan; Rufina Burgoitio Pildain (Zeleta) eta Enrike Txurruka Maiora (Erlaegi) hain zuzen.

Ondoren Azokan parte hartzen duten guztiek bazkaria izango dute Txurrukan.

*Aurten ez da hegaztirik izango, hegaztien gripea dela eta zabaldu den debekuagatik*

Jai giroan sartzeko, goizean goiz Larreategi Anai-arrebak trikitiarekin ibiliko dira kalez kale. Eguerdian, Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkano bertsolari azpeitiarren saioa izango da Erregetzeko tablatuan, eta 13:00ean berriz, abesbatzaren emanaldia toki berean. Plaza Zaharrean baba gorriak prestatzen jardungo dute bost bikotek eta AEK-k talo postua jarriko du. 15:00etan herri babajana izango da Kiroldegiko frontoian eta 19:00etatik 22:00etara Imuntzo eta Belokirekin erromeria Frontoian.

Gauean Gaztetxeak hartuko du erreleboa eta hiru taldek joko dute 22:00etatik aurrera.

### Kontrargiko Rallya

Aurtengo azokako berrikuntzarik aipagarriena Kontrargik argazki taldeak egun horretarako antolatu duen Rallyarena izango da. Kontrargik urtero antolatzen duen Rallya aurreratu eta Gaztañerre Azoka gaitzat (bost alorrretan banatuta) hartuko du aurten. Izen ematea Kontrargiren lokalean (Arrabal 5) egin ahal izango da goizeko 8:30etatik 9:30etara bitartean 10 euro ordainduta. Argazkiak 35 mm-tako diapositiba modalitatean atera beharko dira. Roiloa bertan jaso beharko da eta 14:00etan bueltatu lokalera. Aurtengo azokako irudi sarituak abenduan izango dira ikusgai Kiroldegian.

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**  
434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA



**ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613**

**Kontulan  
Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Sorluze  
Tifonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

# Aitor Atxotegi:

## “Atrebidua naiz, eskumiakin kolpe pixkat dakat eta sakia kuriosua”



Aitor Atxotegi eta Iñaki Jauregi DV Torneoa jokatzen ari dira asteotan. Urtero, pelota munduan mugitzen diren begiraleek 32 pilotari aukatzen dituzte torneo hau jokatzekeo.

### Zela doia denboraldixa?

Ondo. Irailian prestatzaile fisiko barrixakin hasi giñan entrenatzen, gogor, eta astian 4-5 entrenamentu egitten genduzen pixkat formia hartu artian. Oin ondo nabil, nahiz eta eskuak pixkat ikututa euki. Astian 3 entrenamentu egitten doguz.

### Elgoibarko taldiakin jokatzen dozu...

Bai, oin urte bi, kadetien bigarren

mailan Plazentzian jokatzen neban Varelakin baiña honek laga egin zeban eta Elgoibarko Lagunak Pelota Eskolan dihardut. Lagunak-ekin gipuzkuako club artekoa eta Uda-berri saria jokatzen dot. Bestela pelotari bakoitza bere kontura dabil

### Ze moduz DV Torneuan?

DV Torneorako 32 pelotari aukeratu ginduezen, 16 bikote. Lehenengo kanporaketia jokatu zan eta oin 8 pareja gare. Iñakik eta bixok aurre- jarraitu genduan, nik Linzoainekin eta berak Olazabalekin. Guk bihar (azaroaren 11n) dakagu final laurdenetako partidua, Urritikoe-txea-Diaz de Ulzurrun bikotian kontra. Partido gogorra izango da Ulzurrun iazko txapelduna da eta.

### Zeinekik ikasi zenduan pelotan egiten?

Txutxokin hasi nitzan. Lehenengo bi urtietan danak galtzen nittuan. Gero hasi nitzan espabilatzen. Eliodorokin kiroldegixan entrenatzen genduan, eta gero Txutxokin Batzokixan edo Ikastolako frontoian.

### Ze ezaugarri dakazu aurrelari moduan?

Atrebidua naiz (horrek es dau nahi esaterik beti ondo urtetzen dostanik), eskumiakin kolpe pixkat dakat eta sakia be nahiko kuriosua.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

#### ATXOTEGI

#### Burlatoko txapelketan

Atxotegi-Fernández 22  
Telleria-Senperena 17

#### Club artekoan

Atxotegi-Portu 22  
Escudero-Lizarralde 19

### LASKURAIN

Baleztena-Laskurain 11  
Berasaluze IX-Zubieta 22  
Larralde-Laskurain 18  
Baleztena-Urberuaga 14

### FUTBOLA

Gazteak 3-Sora 4 (reg.)  
Ikasberri 5-Sora 1 (jub.)  
Sora 0-Bergara 10 (kad.)

## AGENDA

### PELOTA

#### AZAROAK 11 DV Torneoan

Atxotegi-Linzoain  
Urrutikoe-txea-Diaz de Ulzurrun

#### AZAROAK 13 DV Torneoan

Olazabal-Jauregi  
Castillo-Argote

### FUTBOLA

#### AZAROAK 12, 11:30etan Azpeitian

Ikasberri-Soraluze (reg.)

#### AZAROAK 12, 16:00etan

Sora-Urki (jub.)

#### AZAROAK 12, 09:45etan

Ikasberri-Sora (kad.)

### MENDI IRTEERA

#### AZAROAK 20

Deskarga (1011 m.)-Soraluze  
Ondoren, babajana.

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
*Txipiroiak, Barazki  
Menestra, Gixauak...*  
Asteburuan plater  
konbinatuak  
*Enkarguak etxerako  
( bazkariak eta afariak )*  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

## ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



## SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

# FER. S.A. Industriak

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialada, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfnoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

# Iñigo Sáenz de Urturi Magoa

Iñigo Sáenz de Urturi magoak "Momentos mágicos" ikuskizuna eskeiniko du hilaren 18an kapillan, Udaleko kultura sailak antolatutako Poltsikoko ikuskizunen barruan. Ostiralean, ikus-entzuleak magia giroan harrapatzen saiatuko da.

## BERTSO BEGIZ

Uso hauek kazuelan  
onak irtetzea,  
hobe ez sartzea!  
Rezeta majikoa  
nahi dut jakitzea.  
Ez dirudi hain zaila  
denikan lortzea  
edonor hartu eta  
bitan zatitzea...  
zailagoa dirudi  
berriz elkartzea!

## NEKO

Doinua: Asteburu aldera



Iñigo Saén de Urturi magoa.

### Adiña, jaioterria

35 urte. Gasteiztarra naiz baina Ribabellosan bizi naiz.

### Nola hasi zinen magia egiten?

Halabeharrez. 13 urterekin Juan Tamarizen konjuntio magikoa ikusi nuen Gasteizko eskaparate batean eta atentzioa eman zidan. Hura erosi eta nire kontura hasi nintzen ikasten.

### Ez al dago magia eskolarik?

Ez. Ikastaroak, kongresuak eta bideoak badaude, baina autodidaktak gara batez ere. Beste mago batzuekin hartu-emanetan ere asko ikasten da.

### Oinarritzko trukorik ba al dago?

Magia sukaldaritza bezalakoa da. Oinarriak ikasi eta gero zure plater

propioak asmatzen dituzu. Printzipioak unibertsalak dira, edozein ardetan bezala.

### Zenbat entrenatzen duzu egunean?

Pare bat ordu, pianistek bezala. Atzaparrak ugartu bestela

### Magoren bat ba al duzu erreferente?

Magia eszenikoan David Coperfield eta hurbileko magian Juan Tamariz

### Zer agertu eragingo zenuke? Eta zer desagertu eragin?

Harry Potter banintz haserre eta liskarrak desagertaraziko nituzke; agertu eragin berriz, flexibilitadea eta ulerkortasuna.

### Ba al dakizu jentea bi zatitan ebaten?

Soraluzen antzoki txikia duzue eta

ez dut egingo, baina "druidas y leyendas" gure beste espektakulu baten egiten ditugu horrelakoak. Elgetako kafe antzokian eskeiniko dugu errege egunean.

### Karta jokoan egin al duzu sekula tranparik?

Aspaldi ez dut kartetan jokatu. Galitzen nuenean "zu tontoa zara" esaten zidaten; irabazten nuenean berriz, "tranpa egin duzu".

### Soraluzen usoen superpopulazioa daukagu. Zer egin dezakegu?

Kazuelan oso onak geratzen omen dira. Lanik ez dagoenean badakizue: usoak kazuelara.

### Zer erabiliko duzu ikuskizunean? Kartak...

Danetarik pixkat: kartak (handiak), zapiak, sokak... ikuslea mago bihurtuko dut, eta joku mentalak egin ere bai, ulertzen gaitzak diren efektoak lortuz.

### Zer erakusten digu magiak?

Esperantzak berritzen. Sinestezinak diren gauzak erakusten ditu eta horrek ilusioa pizten du.

### Magiak ba al du beste erabilpenik?

Bai, guk enpresa mundurako lan egiten dugu, ilusionismoa produktuen merkaturatzean aplikatuz. Bestalde, psikomotrizitate arazoak dituztenendako ere lagungarria da, atrofiaturik dagoen sistema nerbiosoko neuronak esna ditzake, kartekin edo txanponekin jolas egiten esaterako.

### Zenbat du psikologiatik magiak?

%98a psikologia da; %2a trukoa.

### Zer da munduko gauzarik magikoena?

Ume baten irrifarrea. Eta heldu baten irrifarrea magiaren bitartez ume bihurtzen denean.

## Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

## VIDAL

### frutadenda

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

## Argazki zaharra



Iturria: Mertxe Arenaza.

### Mendotz baserrikoak XX. mende hasieran

**M**endotz baserriko familia ageri da argazkixan. 30. Hamarkadan Mendotz baserriaren aurrian etaratako argazkixa da. Bertan azaltzen dira (goixan ezkerretik eskumara); Joxe Larreategi, Antoni L., Jesus L., Tomas L., Manuel L., (behean) Juan L., Sebastianarena, Feli L., Patxi L., Pilar L. eta Maria L..

## Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?



*Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!*



Deitu

**943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)

*Aurreko alean...*




**ERANTZUNA**  
Kurutzia faltan

**IRABAZLEA**  
Nerea Altuna



ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
94 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Soraluze



**JATETKEA**  
**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

*Portugalgo Portugalgo fadoak*

Saudadeaz, maiteminaz,  
tristuraz, bizipozaz ...diharduen  
kantuak, gitarra portugesa,  
gitarra espainiarra eta  
flautaren doinuekin.

Azaroaren 26an, iluntzeko 8etan  
**K A P I L L A N**

Domentx Uzin,  
Ane Ugalde eta  
Arianne Unamuno

# EUSKAL DANTZAK IKASI ETA GOZATU NAHI BADITTUZU...

... ANIMATU ETA ETORRI ENTSAIUETARA!

Ezozi Bideko lokalian

**M U T I L A K**

Astelehenetan  
19:00etatik 20:30etara

**N E S K A K**

Barixakuetan  
19:00etatik 21:00etara



S o r a l u z e k o U r r a t s D a n t z a T a l d e a

**XI. gaztañerre azoka**  
azaroaren 12an Sorluzen

Sorluzeko Baserritarrak    Sorluzeko Udala    Debemen Elkarte    Pil-pilean Euskara Elkarte    Sorluzeko Gaztetxea

autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako mintegiak

**Deba Barrena**  
azaroak 29  
ELGOIBAR  
Makina Erremintaren Institutua (IMH)

Orduetgia:  
18:00-20:00

**Bilatu eta aurkitu:  
Nola bilatu Interneten?**

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa? Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa, gure lehiakideen jarduerari buruzkoak, dauden dirulaguntzak eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure negozioarako mesedegarri izan daiteke.

Informatzeko eta izena emateko:  
**943 747 314**  
[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Sustatzaileak:

ELSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO    Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa    euskadi    e.gipuzkoa    SPRI

Antolatzailea:  
  
**Miramon**  
Enpresa Digitala